



IÑAKI ARANA OREGI

(BERGARAKO Pedagogia Sistemikoaren taldeko zuzendaria)

Nola sortu zen Pedagogia Sistemikoaren taldea Bergaran?

Pedagogia Sistemikoaren taldea 2013an sortu genuen Bergaran. Aurretik, 1999an Bert Hellinger filosofo alemaniar ospetsuak Famili Konfigurazioen bitartez garatzen ari zen begirada sistemikoaren berri izan genuen Miren Arzak emazteak (osteopatian espezializatu) eta biok, eta guregan sortarazi zuen onurak eta pertsonaren akonpainamendurako eskeintzen zituen baliabideak aintzat hartuz, bide honetan sakontzea nahi izan genuen.

Gizakion jarrerak ulertzeko eta eraldatzen laguntzeko baliabideak eskeintzen dizkigu Bert Hellingerrrek garatutako begirada sistemikoak; giza harremanetan eta pertsonaren ongizatean jartzen du begirada, ahultzen gaituzten egoera horiek ulertu ahal izateko eta bideratzen laguntzeko gakoak eta baliabideak eskeiniz.

Testuinguru honetan Angélica Olvera irakasle mexikarra ezagutu genuen 2005ean, Mexikon duten eskolan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aplikatzen ari zirelako begirada hau, oso emaitza onak lortuz. Angélicak berak dioenez, berehala konturatu zen Hellingerrren hausnarketak, aurkikuntzak eta aportazioak guztiz aplikagarriak eta onuragarriak zirela eskolan; eta zenbait aspektu jada kontuan hartzen zituzten, Familiekin lan sakona egiten ari baiziren lehenagotik ere CUCEC ikas-komunitatean, familia eta eskolaren arteko zubiak eraikiz.

Prozesu honetan sortzen da Pedagogia Sistemikoa, Angélica Olvera izanik sortzailea, Bert Hellingerrren filosofian eta aportazioetan oinarritzen den begirada eskolara ekartzerakoan.

Ordutik CUDEC ikastetxeak eta unibertsitateak, ikerkuntza eta garatze lan handia egin du, eta euren esperientzia, emaitza eta ezagutza hainbat herrialdetan zabaltzen ari dira gaur egun.

Bide honetan osatu genuen Bergaran CUDEC-Pedagogia Sistemikoa Formakuntza eskeintzeko aukera.



Gaur egun zauden puntura ailegatzeko, zein izan da zure ibilbidea?

Nire ibilbide profesionalaren lehen partea kudeaketa arloan garatu nuen, eta bertan, lan taldeen kohesioak eta lankideon motibazioa sustatzeak interes berezia piztu izan du niregan hasieratik. Jakin nahi honek eraman ninduen Bert Hellinger-en begiradan sakontzera, formatzera eta baita Psikologia ikasketak egitera Mexikon CUDEC unibertsitatean bertan, begirada sistemikoan espezializatuz.

2004tik gaur egunera arte, pertsonaren akonpainamenduan eta lan taldeen indartze prozesuetan lanean ari naiz.

Zein izan da zure esperientzia urte hauetan guztietan EHko hezkuntza sisteman?

Irakasle eta hezitzaileengan jarri dut nire arreta bereziki EHko hezkuntza sisteman, izan ere, irakaslearen lekua funtsezkoa delako ikaslearen ikaskuntza prozesuan. Nola eskeini baliabideak eta nola indartu irakaslea, ikasleen ikasketa prozesua zaindu eta indartu ahal izan dezan?

Irakaslearen “presentzia” sendotzeko baliabideak eskeintzen ditu Pedagogia Sistemikoak, norberarekiko begirada landuz, eta aldi berean ikasleen eta euren familiekiko begirada garatuz, begirada zabala, errespetuzkoa, inklusiboa eta epairik gabekoa. Hemen indartzen da ikaslea, bere osotasunean aintzat hartzen dugunean.



Irakaslearen “presentzia” sendotzeko baliabideak eskeintzen ditu Pedagogia Sistemikoak, norberarekiko begirada landuz, eta aldi berean ikasleen eta euren familiekiko begirada garatuz, begirada zabala, errespetuzkoa, inklusiboa eta epairik gabekoa. Hemen indartzen da ikaslea, bere osotasunean aintzat hartzen dugunean.

Zein ekarpen egin dio PS-k XXI. mendeko hezkuntzari?

Pedagogia Sistemikoak ikaslea bere osotasunean begiratzeko baliabideak eskeintzen dizkigu, hau da, ikaslea bere testuinguruarekin eta bere familia eta jatorriarekin aintzat hartzeko begirada indartzailea da. Ikasleak bizi duena bere hortan hartzen du, irakasleari baliabideak eskeiniz eta hauek garatzen lagunduz, irakasleok gure presentziaren bitartez ikaslee bakoitzak duen distira propioa garatzen lagundu diezaiegun.

Zer lortuko dugu, irakasleok, prestakuntza honekin?

Hamaika urtetan zehar urtez urte hainbeste irakasleren prozesuak ikusi ondoren eta euren ekarpenak aintzat hartuz, prestakuntza honen bitartez bakoitzarengan gertatzen den eraldaketa pertsonala nabarmenduko nuke; hau da, norberarengan eta norberaren irakasle lanarekiko begirada eta bizipenean eraldaketa ematen da, norberan presentzian eta ikasleekiko begiradan aldaketa handia gertatuz.

Ikasle bakoitzari eta familia bakoitzari bere distira propioan begiratzerakoan, bere testuingurua errespetatuz, eskola eta familiaren arteko konfiantza indartu egiten da, eta ikaslea errespetatua eta baloratua sentituko da, bere dohainak eta bere talentua garatzeko eremu seguru batean sentituko delarik.

Irakasleak ikasleak akonpainatzeko baliabide berriak garatuko ditu, konfiantza sendotuko du beregan, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu lasaiago, indargarriago eta osasungarriagoan biziko du.

